

## **8. JARDUERAK**

Gure enpresan guk hainbat funtsezko jarduera ditugu, guk egingo ditugunak. Hasteko, guk diseinatuko dugu gure aplikazioa (geroago beste pertsona batek egingo du). Enpresan lau bazkide gara eta bakoitzak erantzukizun bat izango du. Bat, bezeroen galderetaz edo arazoetaz arduratuko da, bezeroen zain egongo da eta haientzat informazio eskuragarria igotzen etab. egongo da. Beste bi, aplikazioa mantenduko dute, ezer txarto joatekotan konpondu egingo dute, baina, arazoa oso larria izatekotan, tekniko baten eskuetan utziko da arazoa. Azken partaideak, enpresaren kontabilitatea eta administrazioa kontrolatuko du, enpresaren kostuak, diru sarrerak, finantzak...

Funtsezkoak ez diren jarduerak azpikontratatu egingo ditugu. Aplikazioa sortzeko pertsona bat kontratatuko dugu, geroago, pertsona hau beste bi bazkideekin batera aplikazioaren mantenimenduaz arduratuko da. Arazo larri bat izatekotan bera arduratuko da, ezagutza gehien duena delako.